

Bizkaiko Lurralde Historikoko hitzarmen sektorialak.
 Datak Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala argitaratzeari dagozkie

Hitzarmena	Funtzio-eremua	Argitalpen datak			
Anbulantziak	Hitzarmen honen xedapenak manuzkoak izango dira Bizkaiko Lurralde Historikoan gaixoen eta istripua jasandakoen osasun-garraioari dagozkion jarduerak egiten aritzen diren enpresa guztientzat eta beraien langileentzat	2014/06/13	2016/06/10 (Hitzarmen kolektiboaren aldaketa)		
Abokatuen bulegoak	Probintzi Hitzarmen honek ondoan adierazten diren enpresetan jarduten duten langileen lan-harremanak araupetzen ditu: <ul style="list-style-type: none"> — Abokatu eta Prokuradoreen Elkargoa eta bulegoak. — Lan-harremanetako Elkargoa eta bulegoak. — Merkataritzako informazio-agentziak. 	1997/03/19			
Aholkularien bulegoak	Probintzi Hitzarmen Kolektibo honen klausulak manuzkoak izango dira enpresen eta norbanakoen zerga- eta kontabilitate-aholkularitzaren arloan jarduten duten profesionalen bulego eta enpresentzat.	1993/07/01	Berrikuspena: 1994/04/08 (27 orr.)		
Altzarien merkataritza	a) Hitzarmen honetan sinatu diren akordioek altzarien merkataritzako enpresen eta beraien langileen arteko harremanak araupetuko dituzte, enpresako edozein lantokitan, Bizkaiko Lurralde Historikoan dituzten sukurtsalak, ordezkariak eta bulegoak barne. b) Akordio horiek enpresan jarduten duten langile guztiak ukitzen ditu, Administrazio Kontseilu eta Goi Zuzendaritzako kideak soilik izan ezik. c) Hitzarmen kolektibo hau manuzkoa izango da altzarien sektorean, handizkako zein txikizkako merkataritzan, jarduten duten enpresa guztientzat.	2018/08/09	2019/03/08 Soldata berrikuspena		

Arrantza (Marcabilbaoko handizkariak)	Honako hitzarmen honek Merkabilbaoko arrain handizkarien enpresen elkarteko enpresa guztiak araupetzen ditu, hala nola enpresa hauetan lanean dihartuen langileak ere	2019/02/13	2020/05/25 Hitzarmen kolektiboaren Aldaketa	2020/05/25 Soldata berrikuspena	
Arte grafikoak eta honen industria laguntzaileak, paperaren eta kartoiaren manipulazioak eta argitaletxeak	Hitzarmenaren aplikazioa nahitaezkoa izango da enpresa guztientzat eta erakunde publiko eta pribatu guztientzat, eta beraien langileentzat, baldin eta enpresok edo erakundeok grafikagintzari eta honen industria laguntzaileari, paperaren eta kartoiaren manipulazioari eta argitaletxei dagozkien jardueretan aritzen badira. I. Ondokoak dira grafikagintzako industriak eta, oro har, haren industria laguntzaileak: batera edo banaka, paper, kartoi, ehun, plastiko, mintz edo beste edozein gairen gainean kolore bakarrez edo kolore gehiagoz mota guztietako karaktere, marrazki edo irudien konposizio, kopia, grabaketa edo inprimaketan jarduten duten industriak. Adibide gisa, eta arloak mugatzeko asmo barik, eremu funtzional honetan honako jarduerak ere sartzen direla ulertuko da:	2011/02/02	2011/03/25: Soldata berrikuspena	2014/05/08: EJAN emandeko sentencia Lan Hitzarmen honi buruzkoa da	
Autoeskolak	Hitzarmen kolektibo honek "autoeskolei eta gidarien eskolei" dagozkien ikasketa espezializatuak ematen dituzten lan-zentro guztiak ukitzen ditu, Bizkaiko lurralde osoan.	2022/08/04			
Beira eta keramikaren merkataritza		Merkataritza orokorrara pasatu da (2001/09/07)39- 46. orr.			
Beira lauaren manufakturak	Hitzarmen honen klausulek Bizkaiko lurralde osoa ukitzen dute, eta beira manufakturatzen jarduten duten enpresa guztietan aplikatuko da.	1999/08/09 (87 - 90 orr.)			
Berogailuen, aireztapenaren eta aire firotuaren instalazioa	Hitzarmen Kolektibo honetan ondoko jarduera hauek dituzten enpresei aplika dakizkiekeen lan-baldintzak araupetzeko manuak ezarri dira: berokuntza, aireztapen, hozte-sistema edo/eta aire girotuaren instalazioa eta mantenimendua. Hitzarmen hau enpreson eta berauen	2007/06/14 (65- 93 orr.)	2007/11/26 Akta osagarria (75-76 orr.)	2008/02/11: 17. artikuluaren interpretazioa (98-100 orr.)	2008/03/03: Soldata berrikuspena (66- 68 orr.)

	<p>langileen artean diren inoren konturako lan-harremani aplikatuko zaie, Langileen Estatutuaren lehenengo artikuluan xedaturik dagoenarekin bat etorriz. Aplikazio-eremu honetatik salbuetsita egongo dira enpresetan zuzendaritzari dagozkion eginkizunak besterik burutzen ez dituzten gobernu-organoetako kideak eta enpresotako goi zuzendaritzako langileak.</p>				
Bilboko portuko agintaritza	<p>Hitzarmen honek ontzien zamaketaren zerbitzu publikoari dagozkion portu-lanek eragiten dituzten lan-harremanak araupetzen ditu; lan-harreman horiek maiatzaren 23ko 2/86 Errege Dekretuaren 2. artikuluan zehaztu dira. Bi alderdiek ondoan adierazten diren lan hauek sartu dituzte portuko zamaketariei dagokien eremu funtzionalean:</p> <p>1. Itsas garraioan jarduten duten mota guztietako ontzietan dagozkien edozertariko merkatugaien kargaketa, zamaketa, deskarga eta ontzieldaketa.</p>	2003/06/23 (30-80 orr.)			
Bilboko portuko barruko trafikoa	<p>Hitzarmen Kolektibo honek ondoko jarduerak burutzen dituzten enpresak, hitzarmen horren lurralde-eremuan sartzen direnak, ukitzen ditu: atoi-ontzi, gabarra, ala eta ibai-ontzietako langileen eragiketak, bai eta itsasontzi-amarratzaile eta portu-pilotuen lanak, bidaiari-ontzietako langileenak, portuetan mota guztietako garbiketa-ontzietan edo hondakinak batzeko edo bestelako laguntza-jarduerak burutzeko ontzietan egiten diren bestelako eragiketak ere. Horiez gain, Hitzarmena manuzkoa izango da modu generikoan Portu, Itsasadar, Dartsena eta Zamatokietako Barne Trafikoan sailkatzen den langile guztientzat, salbu eta hitzarmen egokiak badituzten Bizkaiko Portu Agintaritzetako langileak.</p>	1998/05/07 (55-60 orr.)			
Bilboko portuko enpresa zamaketariak	<p>Hitzarmen honek Bilboko Portuko Enpresa Zamaketariei eta enpresa horietako langileei eragiten die, portuko zamaketarien kolektiboari izan ezik, beren hitzarmen espezifikoko atxikita baitaude.</p>	2014/02/27	2016/12/20: Soldata berrikuspena	2022/07/06 Akordio partziala	<p>2024/01/30: 2024 urterako lan egutegia</p> <p>2024/10/10 Bilboko Portuko zamaketarien sektoreko hitzarmenaren akordio partziala</p>

Bilboko portuko estatuko zamalanen elkarteak	<p>Hitzarmen honek ontzien zamaketaren zerbitzu publikoari dagozkion portu-lanek eragiten dituzten lan-harremanak araupezen ditu; lan-harreman horiek maiatzaren 23ko 2/86 Errege Dekretuaren 2. artikuluan zehaztu dira. Bi alderdiek ondoan adierazten diren lan hauek sartu dituzte portuko zamaketariei dagokien eremu funtzionalean:</p> <p>1. Itsas garraioan jarduten duten mota guztietako ontziei dagozkien edozertariko merkatugaien kargaketa, zamaketa, deskarga eta ontzieldaketa, eta horrez gainera, ondoko hauek bereziki:</p> <p>a) Ibilgailu eta tren mota guztiak kargatu, zamatu eta deskargatzea, zamak jaso, sailkatu, bateratu eta finkatzeko lanak egitea, eta portualdeetan merkatugaiak multzokatu, zenbatu eta ematea.</p> <p>b) Trinkajea eta destrinkajea, baldin eta lan horiek tripulazioak egiten ez baditu. Altxagarriak, topeak eta astoak jartzea eta biraderak eta bestelako tresnak manipulatzeko portuko lanak dira.</p> <p>c) Emakidetan, biltegiak ere barne, emate, jasoketa, zenbaketa eta kontrol eragiketak ere portuko lanak dira.</p> <p>d) Ontzietan zein tankeetan granel solidoak tutu malguen edo antzeko bitartekoak erabiliz kargatzea eta deskargatzea.</p> <p>e) Automobilak edo motoredun edozein ibilgailu mota kargatu, deskargatu eta gidatzea, baldin eta zamalanak horien ohiko gidariek egiten ez badituzte.</p>	2005/10/06 (59-75 orr.)			
Bingoak	Hitzarmen hau Bizkaian Bingo Jokoa antolatzen duten enpresa guztiei aplikatuko zaie, bai gaur egun lanean ari direnei eta bai inoizkotan eratuko direnei ere.	2007/11/16	2008/03/13: 2008rako taulak (53-54 orr.)		
Bulegoak eta	Probintzi Hitzarmen Kolektibo honetan ondoko jarduerak	2011/06/06	2012/03/29:	2012/02/23:Solda	2014/02/13:

despatxuak (estudio teknikoak)	<p>dituzten enpresetako langile guztien lan-harremanak araupetuko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Azterlan teknikoak eta delineazioa. – Ganberak, Elkargoak eta Elkarateak. – Finken administratzaileak. – Plangintzarako hainbat bulego. – Enpresen antolaketa eta kontabilitate-antolaketa. – Igorpenen kobratzaileak eta mezulari-zerbitzuak. – Informatikako zerbitzu-enpresak. – Beste elkarte batzuetan sartzen ez diren bulegoak eta enpresak, Bulegoei eta Idazguei buruzko Lan-Ordenantzarekin loturik daudenak. <p>....Hitzarmen honen aplikazio-eremuaren barruan Ingeniaritza eta Aholkularitza alorretako enpresak ere sartzen dira, eta beraz, Bulegoei eta Idazguei buruzko Probintzi Hitzarmena aplikatu behar da, bere termino guztietan. (Bizkaiko Bulego eta Idazguetako Enpresetarako Probintzi Hitzarmen Kolektiboaren Batzorde Parekidearen Interpretazio-Akta. BAO, 02-02-14koa)</p>		Sententzia	ta berrikuspena	Hitzarmenaren luzapena
Butano-banatzzaileak	Hitzarmen hau Bizkaiko lurraldean Butano, S.A.ren Butano-Banatzzaileen Agentzia diren enpresei aplikatuko zaizkie.	2021/01/27			
Boltsaren Agenteak		1989/08/07			
Drogeriaren eta perfumerien merkataritza		Merkataritza orokorrara pasatu da (2001/09/07)			
Ehungintza-merkataritzaren	Hitzarmen honek, indarrean jartzen den egunetik aurrera, Bizkaiko Lurraldean ehunkien merkataritzaren alorrean jarduten duten enpresa guztien lan-harremanak	2023/09/18	2023/11/15 2017ko soldata- taulen akats		

	<p>araupetuko ditu, bai eta beste jarduera batzuk izan arren nagusiki ehunkien alorra jorratzen duten enpresen lan-harremanak ere.</p> <p>Halaber, Hitzarmena manuzkoa izango da arestion aipatu baldintzok izaki Hitzarmen honen indarraldian inoizkotan eratzten diren enpresa guztientzat ere.</p> <p>Hitzarmen hau manuzko izango dute eremu funtzionalaren barruko enpresen plantillei dagozkien langile guztien lan-harremanak, langileok eginkizun teknikoa edo administratiboa burutu zein jarduera nagusiko laguntza-zerbitzuetan lan egiten duten pertsonak beren esfortzu fisikoa edo jaramon egitekoa eskaini.</p>		zuzenketa		
Elikagai-denden sektorean etxez etxe ko banaketak	<p>Probintzi Hitzarmen Kolektibo honek elikaduraren merkataritzan, handizkakoan zein txikizkakoan, lan egiten duten enpresa eta langile guztiak ukitzen ditu, bai eta merchandising arloko enpresak eta berauen langileak ere; ondoko enpresa hauek hartzen dira merchandising arloko enpresatzat: osoan edo partzialki elikagaiak banatzen jarduten duten enpresetan produktuak sustatzen, erakusten, dastatzen eta birjartzen aritzen diren enpresak.</p> <p>Hitzarmena elikagaien alorreko vending-enpresei ere aplikatuko zaie; honako hauek dira vending-enpresak: produktuak saltzeko makinak bidez batik batik elikagaiak (janariak zein edariak, hotzak zein beroak, prestatuak zein ontziratuak) banatzen dituztenak.</p>	<p>2021/06/21</p> <p>2022/03/04 Soldata berrikuspena</p>	<p>2023/02/15: Soldata berrikuspena</p>		
Eraikinetako eta aretoetako garbikuntza	<p>Hitzarmen honen xedapenen mendean egongo dira eraikinak eta lokalak garbitzen jarduten duten enpresa guztiak, edozein delarik enpreson era juridikoa eta edozein delarik sozietateon egoitza eta xedea. Horrenbestez, Hitzarmen hau manuzkoa izango dute Bizkaiko Lurralde Historikoan garbiketa-lanak burutzen edo kontratatzen dituzten enpresek, nahiz eta enpresaren xedea, osorik edo partzialki, eraikinak eta lokalak garbitzeari dagokion jarduera berezia ez izan.</p>	<p>2022/11/23</p>	<p>2023/02/09 Akats zuzenketa</p>		
Elikagaigintza Merkataritzako	<p>Hitzarmen Kolektibo Probintzial honek elikagaien merkataritzaren alorrean lan egiten duten enpresa eta langile guztiak hartzen ditu eraginpean, bai</p>	<p>2024/07/05</p>			

	<p>handizkakoak bai txikizka riak, baita «Merchandising» izeneko enpresak eta bertako langileak ere. Bere osotasu nean edo modu partzalean elikagaigintzako produktuak banatzen dituzten enpresetan produktuak sustatzen, erakusten, frogatzen, dastatzen eta hornitzen dituzten enpresak hartzen dira «Merchandising» enpresatzat. Era berean, elikagaigintzako produktuak saltzen dituzten enpresei ere aplikatuko zaie. Saltzeko makinak bitartez, batez ere elikagaigintzako produktuak (elikagai edo edari hotzak nahiz beroak, prestatuak edo ontziratuak) saltzen dituzten enpresak har tzen dira halakotzat.</p>				
<p>Eraikuntza</p>	<p>Hitzarmen kolektibo honen eremu funtzionalak Hitzarmen beronen I. eranskinean ezartzen diren jarduerak dituzten enpresek kontratatutako langile guztiak hartzen ditu, baldin eta Bizkaiko lurraldean ezarri diren edo ezarriko diren lan-zentroetan aritzen badira.</p> <p>I. eranskina:</p> <p>Hitzarmen kolektibo hau ondoan adierazten diren jarduerari aplikatuko zaie, eta nahitaez bete beharko da:</p> <p>a) Eraikuntzari eta herri lanei dagozkien jarduerak, hau da:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Igeltsaritza. – Hormigoia. – Dekoraziorako pintura eta papereztapena. – Zurajea. – Lauzatze eta zolatzea. – Pabadura eta galtzada-harrizko zoladura. – Eskultura, dekorazioa eta eskaiola. – Iztukadura eta entokadura. – Harria eta marmola, horiek eskuz zein era mekanikoan zerratu eta lantzeko fabrikak eta lantegiak barne. – Obrako porlan-jartzaileak. – Putzuetako lanak. – Harrobiak, legar-hobiak, harea-hobiak eta industri lurren ustiapena eta manufaktura; hobi eta lur horiek nagusiki eraikuntzan edo, oro har, herri lanetan jarduten duten enpresek ustiatzen dituzte, beren erabileretarako, eta ustiapen hori zerupeakoa zein galeria, meatze edo zainak indusiz burututakoa izan daiteke, nahiz eta enpresok jarduera horiei dagokien ekoizpen osoa irentsi 	<p>2021/07/28</p> <p>2022/02/10 Soldata berrikuspena</p>	<p>2022/01/05: 2023 urterako Laneko egutegia</p> <p>2023/11/16: 2024 urterako Laneko egutegia</p> <p>2024/11/29: 2025 urterako Laneko egutegia</p>	<p>2023/11/20: Negoziazio- batzordearen akordioa</p>	<p>2024/02/05 Soldaten berrikuspena</p> <p>2024/05/07 Akordio partziala</p> <p>2025/03/27 Akordio partziala</p>

	<p>ez.</p> <ul style="list-style-type: none"> – Harrobiak, legar-hobiak eta harea-hobiak, baldin eta horietatik ateratzen diren materialak eraikuntza edo herri lanetarako erabiltzen badira eta eraikuntza arloko enpresek zuzenean ustiatzen ez badituzte. – Portuetan, lehorrean, kaietan eta morruetan egiten diren lanak. – Batez ere eraikuntzan edo arlo horretan soilik erabiltzeko materialen eta elementu laguntzaileen fabrikazioa, produktu horiek guztiak edo gehienak obretan beretan erabiltzekoak badira. 				
Eraikuntzarako aurrefabrikatuak	<p>Hitzarmen hau eraikuntzarako material eta aurrefabrikatuei dagozkien jarduerak burutzen dituzten enpresei aplikatuko zaie; ondoko hauek dira jarduera horiek:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Morteroen fabrikazioa, zuntz-zementuzko produktuak, masa- hormigoi eta morterozko artikulua eta elementuak, hormigoi armatu aurreatezatuzko eta atzeatezatuzkoak, bai eta zelulosa-zementuzko eta apar-harri-zementuzko artikulua ere. 	1999/08/9 (79 – 87 orr.)	2000/02/24: Soldata berrikuspena (57-60 orr.)		
Bidaiarien Garraio Erregular eta Diskrezional	Errepide bidezko bidairien garraioa	2023/07/06			
Errepide bidezko saltokien garraioa	Lurreko bide mota guztietako merkantzien garraiorako enpresa-jarduerak (energia-bilketako errodadura-bide finkorik gabe ibiltzen diren ibilgailu automobiletan), baita Lurreko Garraioen Antolamenduari buruzko 16/87 Legeak merkantzien garraiorako laguntzaile eta osagarri gisa hartzen dituen jarduerak ere, mezularitza-jarduerak (bitartekaritza- jarduerak dituztenak) eta logistikako operadoreak barne.	2022/07/20	2023/05/29: Batzorde parikearen Akordioa	2024/05/14 2024ko nazioarteko dieten berrikusteko akordioa	2024/05/17 2025eko soldaten berrikusteko akordioa
Esku-Hartze Soziala	Hitzarmen hau esku-hartze sozialaren inguruko jarduerak gauzatzen dituzten enpresa, elkarte, fundazio, zentro, entitate edo antzeko erakundeei (aurrerantzean, erakundeak) aplikatuko zaie, baldin eta erakunde horien izaera juridikoa eskubide publikokoa ez bada, edo erakunde horren akziodun nagusi eta bakarra herri administrazioen bat ez bada.	2019/01/15			

Etkez etxeko laguntza	Hitzarmen honek ethez etxeko laguntzari dagokion zerbitzugintzan jarduten duten enpresa guztien lan-baldintzak araupetuko ditu, enpreson era juridikoa edozein delarik.	2023/05/19			
Farmacia-bulegoak	Bizkaiko farmazia-bulegoetako langile eta titular guztiek bete behar dituzte hitzarmen honetako arauak.	2022/11/30			
Freskorako arrastre-arrantza	Hitzarmen honek Bizkaian freskotarako arrastre-arrantzan jarduten duten langile eta enpresa guztiak ukitzen ditu.	2013/02/20			
Frutak, barazkiak eta platanoak, bilteginak	Probintzi Hitzarmen honek Bizkaian fruta eta barazkien handizkari eta platano-bilteginak gisa jarduten duten langile guztiak ukitzen ditu.	2022/07/21	2024/01/30: 2024 urterako lan egutegia		
Garajeak	Hitzarmena manuzkoa da Errepideko Garraioei buruzko 1971ko martxoaren 20ko Lan-Ordenantzak Garajeen arloan eraentzen zituen enpresa guztiak.	2001/03/14 (52 - 56 orr.)	Berrikuspena 2021/06/02 (54 orr.)		
Gizarte Arloa	Hitzarmen hau Gizarte Arloko Esku hartzearen inguruko jardura betetzen dituzte enpresa, elkarte, fundazio, zentro, entitate edo antzeko erakundeei aplikatuko zaie baldin eta erakunde horien izaera juridikoa eskubide publikokoa ez bada, edo erakunde horren akzionista nagusi eta bakarra Herri Administrazioen bat ez ba da.	2013/06/07			
Gozotegiak	Probintzi Hitzarmen Kolektibo honen gutxieneko arauak manuzkoak izango dira artisautzako pastelgintzan eta gozogintzan eta horietako produktuak saltzen jarduten duten enpresa eta langile guztientzat, bai eta enpresotako merkataritza- eta administrazio-langileentzat ere. Beheragoko eremuko hitzarmenetan beti errespetatu beharko dira artikulua honetan ezartzen	2024/05/28			

	diren gutxieneko xedapenak.				
Harria eta marmola	Hitzarmen hau Bizkaiko Lurralde Historiko osoan aplikatuko da eta euren jarduera Bizkaian garatzen duten ezarritako edo ezar daitezkeen enpresa eta lantoki guztiak hartuko ditu eraginpean, baita enpresa transnazionalak edo atzerrikoak ere. Halaber, Hitzarmen honetan sartuko dira langile diren pertsona guztiak, hitzarmenaren eraginpean hartutako enpresen kontura, eta eskuz edo mekanikoki zerratzeko eta lantzeko lantegiak, eta obran jartzeko enpresak ere barnean hartuta	2019/07/02	2020/02/26 Soldata berrikuspena		
Hileta-zerbitzuak		1985/06/15	Berrikuspena: 1986/04/03		
Hiri-finkak eta enpleguak	Hitzarmen hau Hiri-Finketako Enplegatuei buruz indarrean dagoen Lan-Ordenantzak eraentzen dituen enpresa guztiei aplikatuko zaie, eta manuzkoa izango da Bizkaiko lurraldean lan-kalifikazio hori duten langile guztientzat.	81/08/14			
Hirugarren adinekoentzako Zentroak	Hitzarmen kolektibo hau eremu funtzionaleko enpresa guztietan eta Bizkaiko Lurralde Historikoan lan egiten duten langile guztien kasuan da aplikatzekoa, enpresak helbidea edozein lekutan izanda ere. Hitzarmen kolektibo hau aplikatzekoa zaie sektorean diharduen edozein enpresatan besteren kontura zerbitzuak ematen dituzten langile guztiei. Hitzarmen kolektibo honetatik kanpo geratuko dira goi zuzendaritzako langileak nahiz zuzendaritza edo gerentziako lanetan edo antzekoetan dihardutenak. Aplikazio eremutik kanpo geratzen dira administrazioaren titularitatekoak diren nahiz administrazio publikoak kudeatzen dituen enpresa eta establezimenduetan zerbitzuak ematen dituzten langileak, bai eta etxeko laguntzako sektorean dihardutenak ere, beren esparru propioa baitute.	2018/02/09	2019/04/17 Oker zuzenketa	2023/11.28	

Ile-apaindegiak eta apaindegiak	Hitzarmen hau manuzkoa da ile-apaindegi eta apaindegiei dagozkien jarduerak egiten dituzten enpresentzat eta mota horretako zerbitzuak egiten dituen beste edozein establezimendurentzat, jarduerok aldi baterako edo noizbehinka burutu arren eta enpresen jardueraren xede nagusia ez izan arren.	2000/12/22 (. 46 - 48 orr.)	Interpretazioa: 2001/01/18 (52 orr.)	Berrikuspena: 2002/05/31 (pag. 77)	
Kafea txigortzekoak	Probintzi Hitzarmen Kolektibo hau manuzkoa izango da kafea (kafe disolbagarria eta kafe-suzedaneok ere barne) erre eta saltzen jarduten duten enpresa eta lan-zentro guztientzat, eta bai kafea saldu besterik egiten ez duten enpresentzat ere.	2008/09/30 (79-95 orr.)	2009/03/06: Soldata berrikuspena (121-123 orr.)	2010/03/22: Soldata berrikuspena (124-127 orr.)	2011/05/16: Soldata berrikuspena
Kiroldegiak eta kirol-zelaiak	Hitzarmen Kolektibo honek Bizkaiko lurraldearen eremua hartzen du, eta manuzkoa da Kirol Elkartearekin loturik dauden Lokal eta Ikuskizunen lan-araueketa nazionalak biltzen dituen Bizkaiko enpresa guztientzat; ondoko azpitalde hauek biltzen ditu: igerilekuak, pilotalekuak, bolatokiak, golf zelaiak, futbola, erakustazokak, kiroldegiak, uso-tiroa, itsas kirolak, zaldi-kirolak etab., eta kirolaren arloko ikuskizun oro, baldin eta ikuskizunok behar bezala garatzeko langileria behar badute.	2024/07/23			
Kontserbak eta gazituak	Hitzarmen hau manuzkoa izango da Bizkaiko Lurraldean arrain kontserbak eta gazituak egiten dituzten enpresa guztientzat eta hauen zerbitzura jarduten duten langileentzat. Halaber, Hitzarmen honen eremuan sartzen dira jarduera osagarriak, hots, ontziak eraikitzeke lantokiak, lantoki mekanikoak eta abar, betiere enpresaren mende badaude eta zerbitzuak enpresari soilik egiten badizkiote.	2022/03/30			
Larrugintza eta haren merkataritza	Hitzarmen honek lan-zentroak Bizkaiko Lurraldean dituzten enpresa guztiak ukitzen ditu. Hitzarmen honek eremu funtzionalean biltzen diren enpresetako langile guztiak hartzen ditu, bai eta inoizkotan enpreson plantilletan sar daitezkeen langileak ere. Hitzarmena betetzetik salbuetsita daude goi zuzendaritzako karguak, hau da, kontseilariak, merkataritzako ordezkariak eta	1999-03-17 (66 - 69 orr.)			

	<p>Kontratuei buruzko legearen 7. artikuluan eta egun Langileen Estatutuaren 1. artikuluaen 3. paragrafoan xedaturik dagoenaren arabera salbuetsirik dauden karguak.</p> <p>Hitzarmen hau manuzkoa izango da jantzigintza eta larrugintza arloan jarduten duten enpresa guztientzat; enpresa horiek 1949ko urriaren 20ko Aginduaren eta 1977ko apirilaren 22ko Aginduaren bitartez onetsitako Larrugintzarako Lan-Ordenantzaren bidez onetsi dira. Halaber, Larrugintzako merkataritzan jarduten duten langileak ere Hitzarmen honi atxikitzen zaizkio.</p>				
Larrugintzaren eta oinetakoen merkataritza	<p>Hitzarmen honetan sinatu diren akordioek ilelarru eta oinetakoen merkataritzako enpresaburuen eta langileen arteko harremanak araupetuko dituzte, enpresako edozein lantokitan, sukurtsalak, ordezkariak eta bulegoak barne. Akordio horiek enpresan jarduten duten langile guztiak ukitzen ditu.</p> <p>Hitzarmen kolektibo hau manuzkoa izango da ilelarru eta oinetakoen merkataritzako sektorean jarduten duten enpresa guztientzat, bai eta beste jarduera batzuk izan arren nagusiki ilelarruaren alorra jorratzen dutenentzat ere.</p>	2007/01/31 (37-50 orr.)	2007/05/16 Soldata berrikuspena 2004-2007) 90-92 orr.	2013/07/22: Erabakiaren akta	
Larrugintza eta antzekoak	<p>Hitzarmen hau manuzkoa dute ondoko jarduera hauek egiten dituzten enpresek: larru-bozelketa, marrokneria eta kutxatilagintza, gerrikoak, galtzariak, galtza-uhalak, erloju-uhalak, uhalgintza, gerrikogintza, kiroletarako artikulak, bidaietarako artikulak, botagintza eta eskularrugintza.</p>	2006/06/02 (86-97 orr.)			
Likoreak, ardoak - egitea eta biltzea	<p>Hitzarmen Kolektibo hau Bizkai osoan aplikatuko da, eta likoregileak, ardogileak eta ardogintzako esportatzaileak, botilaratzaileak eta biltegizainak ukitzen ditu.</p>	2019/03/08	2020/05/22 Soldata berrikuspena		
Merkataritza orokorra	<p>A) Hitzarmen kolektibo honetan sinatu diren akordioek ondoko sektoreetan jarduten duten enpresen eta langileen arteko harremanak araupetuko dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Eraikuntzako merkataritza. – Lore eta landare, belar-denda, senda-belar eta 	2023/11/29	2024/06/26 Aldaketa		

	<p>ortopedien arloko merkataritza.</p> <ul style="list-style-type: none"> – Erlijio-artikuluuen merkataritza. – Ikaztegiak. – Labore, pentsu eta bazka alorreko merkataritza. – Ongarritzeko gaien merkataritza. – Marko eta molduren merkataritza. – Jostailu-dendak. – Optikak. – Gai kimiko eta industrialen handizkariak eta inportatzaileak. – Zientzi materialen handizkariak eta inportatzaileak. – Farmazi lehengaien handizkariak eta inportatzaileak. – Laborategietarako materialak. – Opari-gaiak. – Beira eta zeramikaren arloko handizkarien eta txikizkarien merkataritza. – Drogeria, lurringintza, garbiketarako gaien eta antzekoen handizkariak eta txikizkariak. <p>– Argazkilaritza-taldea, honako hauek hartzen dituen: aparatuen merkataritza eta salmenta, eta bai airetiko argazkigintza, galeriadun edo galeriarik gabeko argazkigintza, argazki-kabina, errebelatu eta argazki-laborategiko lan-prozesuren bat erabiliz merkataritzako argazkigintzan edo arestian aipatu alor horietako salerosketan aritzen diren jarduerak.</p> <p>– Handizkako zein txikizkako merkataritzan jarduten duten gainerako sektore eta enpresak, baldin eta goian adierazi den zerrendaren barruan ez badaude eta indarreko hitzarmenik ez badute. Kasu horietan, horientzat ere Hitzarmen hau manuzkoa izan dadin, beren beregiko atxikimendua adierazi beharko dute.</p> <p>B) Akordio horiek enpresan jarduten duten langile guztiak ukitzen ditu, Administrazio Kontseilu eta Goi Zuzendaritzako kideak soilik izan ezik.</p> <p>C) Hitzarmen kolektibo hau manuzkoa izango da enpresa bakoitzeko edozein lantokirentzat, Bizkaiko Lurraldean diren sukurtsalak, ordezkariak eta bulegoak barne.</p>				
--	--	--	--	--	--

<p>Metalaren merkataritza</p>	<p>Hitzarmen kolektibo sindikal hau manuzkoa izango da metalaren merkataritzako sektorean jarduten duten enpresa guztientzat; alde batetik, Hitzarmenak industri merkataritzan jarduten duten elkarte hauek hartzen ditu: txatarreroak; burdin biltegizainak; altzairu finen biltegizainak; hodi eta aldagailuen biltegizainak; burdineriaren arloko biltegizainak; honako produktu hauek merkaturatzen dituztenak: profesionalentzako gai eta aparatuak, makina-erremintak, industri makineria eta aldagailuak, nekazaritzako makineria eta aldagailuak; ondokoak inportatzen eta merkaturatzen dituztenak: bulegoetarako makinak eta altzariak, saneamenduko materialak; metal ez-ferrikoen eta makineria elektrikoaren biltegizainak.</p> <p>Beste alde batetik, Hitzarmenak merkataritza publikoan jarduten duten elkarte hauek ere hartzen ditu: burdineriaren arloko biltegizainak/txikizkariak; hustuketarako lantegidun aizto-merkataria; arma-denda eta kirol dendetako merkataria; erlojuen inportatzaile eta merkataria; automobil, kamioi eta motozikleten inportatzaileak; automobil, kamioi, motozikleten eta automozioiko aldagailuen saltzaileak; bitxigintza, zilargintza, bisuteria eta antzeko alorretako merkataria; informatikako materialen saltzaileak; telefonia mugikor, material elektriko eta etxetresna elektrikoaren saltzaileak; eraikuntzarako makineriaren saltzaile eta akuratzzaileak; horiei guztioi 1971ko uztailaren 24ko Merkataritzako Lanari buruzko Lan-Ordenantza aplikatu behar zaie.</p>	<p>2018/07/23</p>			
<p>Okindegiak</p>	<p>Probintzi Hitzarmen Kolektibo hau manuzkoa izango da okintzan edo ogi-salmentan jarduten duten eta Bizkaiko lurraldean dauden edo egongo diren enpresentzat, bai eta enpreson indarraldiak dirauen artean jarduera horiek egiteko kontratatzen diren langileentzat ere. Enpresa horien barruan sartzen dira okindegi, ogi-denda eta ogi-labe deritzenak, eta bai ogia egiten edo saltzen jarduten duen beste</p>	<p>2014/02/11</p>	<p>2016/07/27 Hitzarmen kolektiboaren ultraaktibitatearen handitzea</p>	<p>2018/06/25 Hitzarmen kolektiboaren ultraaktibitatearen handitzea</p>	
	<p>Bizkaiko Lurraldean jarduten duten ontzi-</p>				

Ontzien jasotzaileak	kontsignaziodun enpresak, zamaketari-enpresak eta enpresa garraio-kudeatzaileak eta berauen langileak lotzen ditu.	2008/06/23 (78-94 orr.)	2008/06/23. Soldata berrikuspena (96-102 orr.)	2009/03/06: S0ldata berrikuspena (117-121 orr.)	
Hormigoiak eta harrobiak	Hitzarmen hau ondoko jarduera hauek burutzen dituzten enpresa guztiei aplikatuko zaizkie: 1. Harrobiak, harea-hobiak, legar-hobiak eta industri lurren ustialekuak. 2. Igeltsu eta kareaz lan egitea. 3. Hormigoia fabrikatu eta saltzea.	25/01/2010 (79-114 orr.)	2010/01/19: 2011 urterako Lan egutegia	2011/03/04: Soldata berrikuspena 2012/01/23: urterako Lan egutegia	2013/01/10: urterako Lan egutegia
Ospitaleratzeko osasun-guneak	Probintzi Hitzarmen Kolektibo honek ospitaleratzeko osasun- enpresa eta establezimenduen lan-baldintzak araupetzen ditu, horiek eratzeko edo izendatzeko aukeratzten den era gorabehera	2004/05/07 (83-94 orr.)	2005/05/05: Soldata berrikuspena (80-82 orr.)	2006/03/13: Soldata berrikuspena (75-78 orr.)	
Ostalaritza	Hitzarmen hau manuzkoa izango da establezimendu edo instalazio finkoetan zein mugikorretan, estalietan zein estali gabeetan, modu iraunkorrean nahiz noizbehinka, ostalaritzako zerbitzugintzei dagozkien jarduerak egiten dituzten enpresentzat, horien titulartasuna (pertsona fisikoak edo juridikoak izatea zein elkarte publiko, erdipubliko edo pribatua izatea) eta erdietsi nahi dituen xedeak gorabehera; jarduera horietan ostatu eta janari-edariak ematea sartzen da, bai eta adierazi diren horietarik zerbitzu mistoak ematea ere.	2018/09/18	2019/02/13 Soldata berrikuspena 2020/02/06 Soldata berrikuspena	2021/01/15 Hitzarmen kolektiboaren luzapena	
Segurtasun enpresak	Hitzarmen honen aplikazio-eremuaren barruan honako jarduera hauek egiten dituzten enpresa guztiak sartzen dira: edozein lokal, ondasun edo pertsona mota zaindu eta babesteari dagokion zerbitzugintza, eskolta-zerbitzuak, ondasunak edo pertsonak baliabide eta ibilgailu egokiak erabiliz erotea edo lekualdatzea, eta enpresa horiek bereziki ematen duten zaintza eta babesa behar duten dirutza, funts, balio, bitxi eta bestelako ondasun eta objektu baliotsuak manipulatu eta biltegiatzea. Halaber, Hitzarmen Kolektibo hau manuzkoa izango dute arestion aipatuez gain ondoko zerbitzu hauek egiten dituzten enpresak ere: sistema elektronikoen eta	1989/05/22			

	<p>ikusizko, entzunezko edo bestelako tresnen bidezko sistemen fabrikazio, banaketa, instalazio eta mantenimenduaren bidez burutzen diren zaintza eta babes zerbitzuak; Hitzarmenetik beren beregi salbuesten dira instalazioen fabrikazioan edo/eta sistema horien mantenimenduan soil-soilik jarduten duten enpresak.</p>				
Siderometalurgika	<p>Probintzi Hitzarmen Kolektibo honek Bizkaian Metalgintzan jarduten duten enpresa eta langile guztiak ukitzen ditu, bai siderurgiaren ekoizpen-prozesuan, bai transformakuntzaren alor guztietan eta biltegiatzean lan egiten dutenak; halaber, Hitzarmenak metalezko ontziak eta potoak fabrikatzen jarduten duten enpresak ere ukitzen ditu, ontziok fabrikatzeko 0,5 mm-tik gorako lodiera duen txapa erabiltzen dutenean. Era berean, siderurgiaren antzeko lanak, lan osagarriak edo metalgintzari laguntzekoak burutzen dituzten enpresak, lan-zentroak edo lantegiak ere ukitzen ditu, baldin eta ondoko lan hauek egiten badituzte: instalazio-lanak, muntaiak, iturgintza eta instalazio elektrikoak, elektrizitatea eroateko hariteria, telefono- hariteria eta sareak, trenbideetako seinaleztapena eta elektrifikazioa eta optika- eta doitasun-industria. Bestalde, Hitzarmena manuzkoa izango da aurreko paragrafoan jaso diren antzeko jardura berrientzat ere.</p> <p>Hitzarmen Kolektiboaren eremutik kanpo daude merkaturatze-prozesu esklusiboko artikulak saltzen jarduten duten enpresak eta langileekin hitzarmen kolektiboa beren beregi sinaturik dutenak, baldin eta, oro har, hitzarmen horren baldintzak langileentzat hobeak badira, zenbatzeko modukoak diren kontzeptuen urteko balorazioari dagokionez; beti ere, beharrezkoa den zuzenbideko gutxienekoak errespetatu beharko dira. Egunera arte hitzarmen berezia izanik ere indarrean dagoen legeriaren arabera beren beregi erabakitzen duten enpresak eta langileak atxiki ahal izango zaizkio hitzarmen honi, eta beronen estipulazio guzti-guztiei atxiki ahal izango zaizkie, beste barik.</p>	2023/05/12	2024/02/05 Dieten berrikusteko akordioa		
Tindaketak eta garbitegiak	<p>Hitzarmen hau Bizkaiko Lurralde Historiko osoan aplikatuko da, eta manuzkoa izango da ondorik adierazten diren arloetan sartzen diren edo jardura</p>	2005/01/28 (73-83 orr.)	2005/11/15. 2005eko Soldata berrikuspena (48-	2006/08/04 2006ko soldata berrikuspena	

	<p>hauek dituzten enpresa eta langile guztientzat: tindategiak eta arropa garbitzeko zerbitzuak, ikuztegiak eta autozerbitzuak, eskuz edo makinaz plantxatzeko zerbitzuak eta jendearen enkarguak jaso eta itzultzeko establezimenduak.</p>		49 orr.)	(102-103 orr.)	
Zerbitzu-guneak (gasolindegia)	<p>Hitzarmen hau Hornitegiei buruzko 1976ko azaroaren 27ko Lan-Ordenantzaren 3. artikuluan araupetu den eremu funtzionalean biltzen diren enpresa eta langile guztiei aplikatuko zaie, baldin eta Hitzarmen honi dagokion lurralde-eremuak badira.</p>	2024/02/08			
Zinema-banaketa	<p>a) Hitzarmen honetan sinatu diren akordioek zinema-banaketa arloko enpresen eta beraien langileen arteko harremanak araupetuko ditu, enpresa bakoitzaren lan-zentro guztietan, enpresok Bizkaiko lurraldean dituzten sukurtsalak, ordezkariak eta bulegoak barne.</p> <p>b) Akordio hauek manuzkoak izango dira arestion aipatu enpresetan jarduten duten langile guztientzat, horien kontratazio-mota eta kontratu bakoitzari dagokion legezko araubidea gorabehera.</p>	2004/03/04 (76-81 orr.)			
Zinema-erakustaldiak		1982/11/12 (62 - 64 orr.)			
Zurgintza	<p>Hitzarmen Kolektibo hau Bizkai osoan aplikatuko da, eta zuraren industriarako lan-ordenantzan sartzen diren edo berorren bidez antola daitezkeen enpresa eta langile guztiak ukitzen ditu.</p> <p>Aplikazio-eremu honetatik at dago altzarien merkataritza.</p>	2003/11/06 (27 - 39 orr.)			